

<i>Berdintasun Zerbitzua</i>		<i>Getxoko Udala</i>
<b>Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Data: 2020-02-06

Tokia: RKE

Ordua: 17:00etatik 20:00etara

**Bertaratutakoak:**

Enpresa-sarea: Izaskun Rama

Eskuz-esku: Isabel Perez

Bilgune feminista: Uxune Iriondo

EH Bildu: Cristina Zamora

EAJ-PNV: Keltse Eiguren

ELKARREKIN PODEMOS-EP: Paula Amieva

PSE: Estibaliz San Sebastian

LAB: Iratxe Zarraga

Gizatiar: Begoña Bas

PP: Javier Elorza

Lehendakaritza: Carmen Diaz

Idazkaritza: Bego García

Mujeres con Voz: María de Celis (gonbidatua)

**Egon ez direnak:**

Berritzegune

**Gai-zerrenda**

- Aurreko akta onestea. Azken bilerako akta atxiki da.
- 8M kanpaina. Proposamenak ekartzeko eskatu da.
- Bi prozesu irekien berri ematea: Indarkeria-protokoloa eta Batzordearen biziberritzea eta sistematizazioa.

- Galderak eta eskaerak

## **Aurreko akta onestea**

---

Aurreko bilerako akta, 2019ko abenduaren 12koa, onetsi da.

## **8M kanpaina**

---

Utopianeko Arantza Iurre izan da gonbidatua eta horrek Getxoko martxoaren 8ko kanpainarako giza-liburutegien proiektua aurkeztu du. Erantzukidetasunaren inguruko errealitate desberdinen inguruan kontzientziatzeko, jakinarazteko eta ezagutarazteko proiektu bat da. Ordezkaritza horretan artea eta esperientzia pertsonalak erabiltzen dira; bertan, liburu baten ordez bere bizi-esperientzia kontatzen duen pertsona bat aukeratzen da; eta horrela, hitzez gain, sentimenduak ere jasotzen dira.

Arantzak hitz egin ostean, proiektuaren ikuspegi feministaren inguruko eta giza-liburutegien eduki posibleen inguruko eztabaida bat piztu da.

Liburutegien edukiaren harira, batzordean honako gai hauek proposatu ditu:

- Maskulinitate berriak.
- Landa-munduko emakumeak eta erantzukidetasuna
- Memoria historikoa: dibertsitate funtzionala, zaintzak, emakume migratuak, transexualitatea.
- Etxeko zaintzak eta lanak

Berdintasun teknikariak Udalak kanpaina honetarako egin duen proposamena azaldu du. Emakunderen 2019ko Berdintasun Saria jaso

duen Cony Carranzak dinamizaturiko interseksionalitateari buruzko mahai-inguru bat da.

Jardunaldia martxoaren 6an egingo da Billamonteko Kultur Etxean, 18:30ean.

Batzordearen egunean, hizlarien eta horien parte-hartzeen inguruko honako informazio hau eman zen:

- JEANNE ROLAND
  - o Interseksionalitatea teorikoki testuinguruan jartzea.
  - o Emakume migratu eta arrazializatuen agenda feminista antiarrazista eta dekoloniala.
- MARIAM ANDRES ACHA.
  - o Marjinen feminismoa sistema kapazitista batean
    - Egoera kontzeptuala
    - Oztopoak
    - Zer ekarpen egiten dugu
    - Feminismo dibertsoa
    - Zer egin behar dugu
- Sare lesbianistako LEIRE GOMEZ
  - o Sexualitate desberdinak
- RIOSBY FERNANDEZ
  - o Etxeko lanak eta zaintzak. Etxeko langilea eta zaintza-langilea Getxon. Haurren hezitzailea.

## **Indarkeria-protokoloa eta Batzordearen biziberritzea eta sistematizazioa.**

### **INDARKERIA-PROTOKOLOA.**

Udallerriari berdintasun arlotik emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko koordinazioaren esparruan burutzen ari den lanean hobekuntzak egitea eta aurrera egitea ahalbidetuko dion prozesu batean laguntza teknikoa emateko xedea duen indarkeria-protokoloa berrikusteko prozesu irekia zer egoeratan dagoen azaldu da.

- Beste udalerrri batzuetako protokoloak eta esperientziak identifikatu eta aztertu dira.
- Dossier bat egin da Getxoko protokoloaren egungo egoerarekin, ekarpenekin eta hobetzeko proposamenekin.
- Gaur egun protokoloaren jarraipen batzordean parte hartzen duten pertsona erreferenteei elkarrizketak egiteko galdetegi bat egiten ari dira.

### **BATZORDEAREN SISTEMATIZAZIOA ETA BIZIBERRITZEA**

Berdintasun Batzordea indartzeko eta eztabaidatzeko, proposatzeko, erabakiak hartzeko eta berdintasun-politika publikoetan eragiteko gai izango den parte-hartzerako espazio dinamiko eta berritua bilakatzeko xedea duen prozesu horren egoeraren berri eman da.

- Elkarrizketak egin zaizkie azkenengo 10 urteetan berdintasun batzordean parte hartu duten talde politikoetako eta elkarteetako ordezkariari. Guztira, 10 emakume elkarrizketatu dira, horietatik lau emakumeen elkarteetako kideak dira.
- Banakako elkarrizketez gain, parte-hartze tailer bat egingo da emakumeen elkarteekin bakarrik. Tailer hori otsailaren 27an gauzatuko da.
- Batzordeko titularrentzako zein ordezkariarentzako xedaturiko prestakuntzarako datak ere itxi dira. Hori ere Billamonteko Kultur Etxean egingo da, 3 saiotan, 2,5 orduko bakoitza, honako egun hauetan:
  1. Otsailak 24
  2. Martxoak 2
  3. Martxoak 9

Hurrengo batzordean 2018ko eta 2019ko ekitaldiei dagozkien kudeaketa-planen berri emango da.

Hurrengo batzordea 2020ko apirilaren 2an.